

## Etxeko hondakinak nola kudeatzen diren aztertuko du Ingurumeneko sailak

470 bizilagunek erantzuko diote Udalak eta Lasarte-Oria Bizirik elkarteak prestatutako inkestari

Ingurumen, Kontsumo, Merkataritza eta Sanitateko departamentuak Artelatzen enpresari esleitu dio hondakin kudeaketari buruzko azterketa. Rikardo Ortega batzorde buruak asteartean azaldu zuen bezala, "inkestaren emaitzak herritarren pertzepzioa neurtu eta dauden puntu ahulak ezagutzeko balioko du. Gainera, inkestako galderak Udalak eta Lasarte-Oria Bizirik elkarteak adostutakoak dira."

Rikardo Ortegarekin batera Artelatzeneko ordezkaria, Mikel Urruzola eta Amaia Elizagarate inkestaren arduraduna egon ziren, inkestaren nondik norakoa azaltzeko.

Artelatzeneko ordezkariak azaldu zuenez hiritarren per-

zepzioa bilatzen dute hilabete honetan egingo den inkestaren bidez, "hondakin kudeaketa eta atez ateko bilketari buruz zer dakiten, haiek zer egiten duten, informazioa nondik jasotzen duten, etab. galdetuko zaiei."

"Bertan lortzen diren datuak kontzientziario kanpaina indartsu eta eraginkorra egiteko balioko du, baita etorkizunean egingo diren kanpainentzat ere," adierazi zuen Mikel Urruzolak eta, honetaz gain, "eskerrak eman nahi diegu herritarrei. Astelehenean hasi ziren inkestak egiten eta oso jarrera ona izan dute".

Amaia Elizagaratek inkestaren arduradunak azpimarratu zuen inkestari esker

herriarren iritzia udaletxe eta beste gunetara iristeko aukera ezin hobea dela eta jendeak beldurra izan ez zezan eskatu zuen, "inkestak izango da eta 15 urte gorakoei egingo zaie. Etxeak aleatorioki aukeratu dira eta hortik lagin errepresentatiboa ateratu da. Guztira 470 pertsona. Inkestak 35 galdera ditu 8 blokeetan zatituta."

Honetaz gain, Rikardo Ortegak urte bukaeran atez ateko esperientzi pilotua martxan jartzea espero dute. "3000 biztanlek parte hartuko dute. Baina ongi mugatu nahi dugu bilketa sistemaren eremua lehenik. Gainera, Usurbilgo esperientzia baliagarri izango da", esan zuen Ingurumeneko buruak. •



Inkesta bidez, lasarteoriatarrek hondakin kudeaketa nola egiten duten jakingo da.

### Punto Radio Lasarte-Oriatik zuzenean

Astearte eguerdian Brigitarren enparantzara gerturatzeko zirenekin ezusteko handia aurkitzen zuten bertan, Punto Radio irrati kamioia baitzegoen. Juan Mari Mañeroren programak lasarteoriatarrek izan zituen *Protagonista*. Honela herriko Urbil merkatagunea eta udal ordezkariak, Iñaki Mujika alkate ordea eta Jesus María Zaballos izan ziren bertan elkarrizketatuak. Azken hauek, gainera, Lasarte-Usurbil institutuko gazteen eta auzo elkarrekin galderak erantzun behar izan zituzten. Ostean, Tito Irazustaren *Deporte y Punto* programaren nondik norakoak ikusteko aukera egon zen. •



#### EUSKARA | 4

Marifer Gorostiza teknikariarekin enpresa eta euskarari buruz aritu gara solasean

#### GIZARTEA | 5

Emakumeen Nazioarteko Eguneko hainbat ekitaldi asteburuan

#### KIROLA | 6

LOKEko judoken asteburu oparoa



Errebelatu DIGITALA ORDU ERDIAN  
KARRETEEN errebelatua ORDU BETEAN

ESTUDIOKO erreportajeak  
makina DIGITALAK  
30X90 neurrirainoko ANPLIAZIO DIGITALAK  
Markoak jartzeko tailerra

EZKONTZETAKO erreportaje  
PREDIGITALAK



Jaunartzeko liburu Digitalak



**Zorion-agurrak**



**Ainhoa**

Zorionak sorgina. Ondo pasa zure urte-betetzean. Lagunen partetik.



**Iraia**

Zorionak Iraia!! Marrubisko muxu pottolo bat, Aimar eta aita txoen partetik.



**Judith eta Garazi**

Sei muxu handi. Guraso, Yaiza eta familia osoaren partetik. Ondo pasa!



**Jon**

Zorionak eta muxu handi bat Mikel eta gurasoen partetik.



**Aiora eta Maialen**

Zorionak biei familiaren partetik.



**Eneritz**

Zorionak politta. Tarta pixkat utzi guretzako. Bi muxu pottolo. Aitaxo eta amatxo.



**Julen**

Zorionak zure zazpigarren urtebetetzean gurasoen partetik. Ondo pasa txapeldun!



**Arantxa eta Berta**

Zorionak bikote! Berandu bada ere, ez gara zuetaz ahaztu! Aurreko asteburuan ospatu bagenuen ere, honetan errepikatu dezakegu, ez? Muxu handi bat!! Betiko ero kuadrillaren partetik.



**Gorka**

Zorionak gaztetxo! 13 muxu handi familia eta Sandraren partetik.

**Guardiak**

**Ostrala, 6**

Urbistondo, San Frantzisko 1  
Tel.: 943 366567

**Larunbata, 7**

Orue, Jaizkibel plaza 2  
Tel.: 943 362652

**Igandea, 8**

Orue, Jaizkibel plaza 2  
Tel.: 943 362652

**Astelehena, 9**

Orue, Jaizkibel plaza 2  
Tel.: 943 362652

**Asteartea, 10**

De Miguel, Kale Nagusia 32  
Tel.: 943 371151

**Asteazkena, 11**

Rodriguez, K. Nagusia 42 atzea  
Tel.: 943 361774

**Osteguna, 12**

Gil, Kale Nagusia 24  
Tel.: 943 361529

**Telefonoak**

**Osasuna / Larrialdiak**

Osasun Zentroa ... 943 007960  
DYA ... 943 464622  
Gurutze Gorria ... 943 363953  
Udaltzainak ... 943 362442  
Ertzaintza ... 943 288888  
SOS Deiak ... 112

**Udala**

Erregistroa ... 943 376055  
Euskarako Zerbitzua 943 376184  
Kiroldegia ... 943376182  
Kulturetxea ... 943376181  
Bakezko epaitegia ... 943371629  
Zerbitzu Sozialak ... 943376179  
Zentro Zibikoa ... 943363958  
KIUB ... 943361605  
Udal euskaltegia ... 943361621  
Obrak eta zerbitzuak ... 943 376180

**Jaiotzak**



Xabier Olazagoitia Carro, otsailaren 25ean.  
Piero Angelo Castillo Baltodano, otsailaren 24an.  
Marina Mayor Gil, otsailaren 23an.  
Izaro Martin Pérez, otsailaren 23an.

**Heriotzak**



Ignacio Huegun Otaegi, martxoaren 1ean 66 urte zituela.  
Manuela Corta Lizarraga, otsailaren 27an 84 urte zituela.

**Azoka txikia**

**Eskaintza inmobiliarioak**

• Landak:Vieux Boucau-n (Le Boulanger urbanizazioan) 4 pertsonentzako estudio bat alokatzen da Aste Santuan eta Pazko astean.Tel.: 943 370534, gaeuz.

• Zumaburuko garaje berrietan, plaza t'erdiko (18 m2) garaje itxia eskeintzen da -I pisuan alokairuan.Tel.: 636.46.80.56.

• Logela bat alokatzen da pisu partekatut batean.Alokairua 300 eurotakoa da. Harremanetarako zenbakia, 627 556 932.

• Lasarte-Oriako zentroan pisu bat alokatzen dut. Harremanetarako zenbakia, 686 674 552.

• Lasarte-Oriako zentroan garajea alokatzen dut. Harremanetarako zenbakia, 686 674 552.

**Salerosketak**

• Mutilentzako jaunartzeko jantzi berriak eta oso prezio onean saltzen ditut, 60 eurotik aurrera. Tel.: 688.667982.

**Oharrak jartzeko:**

Tel.: 943 366858  
Geltoki kalea 4  
txintxarri@ttakun.com  
www.txintxarri.info  
www.txintxarri.iragarkilaburak.com

Oharrak Txintxarri agertzeko asteazken eguerdirako helarazi behar dira bertara. Iragarbi laburren ataldean agertzeko (papereko edizioan) astearte goizerako.

**GAZTE INFORMAZIOA**  
Manuel Lekuona kulturetxea • Tel.: 943 376181  
www.gipuzkoangazte.info

**Kursaal Elkargunea, sa-rensukaldaritzza, kafetegia eta catering zerbitzuak kudeatuko dituen antolatzaille bat kontratatatzeko lehiaketa**  
Kursaal Jauregiko sukaldaritzza, kafetegia eta Kursaal Jauregian egingo diren ekitaldietarako catering zerbitzuak kudeatuko dituen antolatzaille baten kontratazioa. 5 urte gehi 5 urte luzapena. Hasiera: 2010eko urtarrilaren 1ean. Izena emateko azken eguna martxoaren 26a. Informazio gehiago Kursaal Elkargunean, Zurriola Hiribidea 1, Donostia; telefonoa: 943 003000; faxa: 943 003001; web orria: <https://ssl4.gipuzkoa.net/euskera/gao/2009/02/17/e0901817.htm>. GAO aldizkariko 31. zk. (2009-02-17).

**Gazte-informazioko bulego-zerbitzua kontratatatzeko delaldia Lasarte-Oriako udalean**  
Lasarte-Oriako Udalean Gazte Informazioko Bulego-zerbitzua kontratatatzeko lehiaketa. 3 urte, eta urtebetez luzatu ahalko da, baina gehienez ere urtebeteko 3 luzapenekin. Izena emateko azken eguna martxoaren 17a. Informazio gehiago nahi izanez gero, edo izena emateko, jo Lasarte-Oriako udalera: Kale Nagusia 22; telefonoa: 943 376055; faxa: 943 372659; helbide elektronikoa: udala @lasarte-oria.org; web orria: <http://www.lasarte-oria.org/contratacion> eta <https://ssl4.gipuzkoa.net/euskera/gao/2009/03/02/e0902140.htm>.

**Giza Eskubideen VII. Zinemaldia film laburren nazioarteko lehiaketa" gazteen epaimahaia**  
Epaimahaiko partaidea izateko baldintzak: 18 eta 30 urte bitarteko gaztea izatea eta apirilaren 8a baino lehen izena ematea. Iraupena: apirilaren 23tik 30era. Izena emateko: [cinederechoshumanos@donostia.org](mailto:cinederechoshumanos@donostia.org); 943 48 14 98 eta 943 48 19 75 edo Gazte Informazio Bulegoan, Mari kalea, 1, Donostia; web orria: <http://www.cineyderechoshumanos.com>.

**Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak**



**Lasarte-Oriako Udala**  
**Euskarako Batzordea**



Argitaratzailea: Ttakun Kultur Elkarteak, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SSS13/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.300 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarri ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

# Hip hop eta irudien nahasketa *Papiro...flexian*

TXINTXARRI

*Papiro...flexia* Circle of trust hip-hop dantzak eta Logela multi-mediaren musikak eta bideo-sorkuntzak osatzen dute. Dantzariak dantza indartsu eta denbora errealean sortutako irudien sinkronizazioa uztartzen dituzte. Abiapuntua folio zuria da, tolestuz sormenezko milaka konbinazioa erakusten dituen.

Hau da gaur arratsaldean 20:00etatik aurrera ikusi ahalako den ekitaldia.

## Dantza sustatu

*Papiro...flexia* asteazkenean aurkeztu zen Lasarte-Oria Dantzan 2009 barruko ekintza da. Prentsaurrekoan Jone Altuna Kulturako batzorde burua, Xabier Goitia kulturako teknikaria eta Iñaki Landa dantzako irakasleak egitasmoari buruz hitz egin zuten.

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako hainbat agertoki hartzen dituen Dantza Garaikidearen V. Zirkuituari esker, Lasarte-Orian bost dantza emanaldiz gozatze-ko aukera izango da martxoan hasi eta azarora bitartean.

Xabier Goitiak azaldu zuenez, "*Papiro...flexia* da lehenengoa, maiatzaren 15ean *Concierto Desconcierto* emanaldian musika eta dantza uztartuko ditu Entremans dantza taldeak, maiatzaren 29an Erza taldearen *Zoo pizti traje-dunak*, urriaren 23an *Lur Sagar*



Breakdance-a eta hip hop-a izango dira gaur nagusi Kultur etxeko aretoan.

Biarritzeko Junior Balletak eskainia eta azaroaren 20an *Tondo Redondo 0* eta 4 urte arteko umeentzat bereziki prestatutako saioa da."

"Ekimen honen helburua dantza sustatzea da," adierazi zuen Jone Altunak prentsaurrekoan, "dantza sustatzea ahalegin handia da eta guztion gustuko diziplina izatea nahiko genuke."

Horretarako, Udala herriko dantza taldeekin, Lasarte-Usurbil Institutoarekin eta hainbat elkarterekin haremanetan jarriko dela aurreratu zuen. "Gazteak dantzara gerturatu nahi ditugu, baita herriko talde eta elkarteak ere," aipatu zuen.

Iñaki Landak "dantza mino-ritarioa da, baina ez da esklusibo" azpimarratu zuen eta "ikusizun hauek ez dira jakitunak ikustekoak, edonork uler ditzake," atxiki zuen. Hurrengo urtean ekimenak jarritzea espero duela ere adierazi zuen, "hau hasiera da eta bost ekarri dira, espero hurrengo urtean zenbakia bikoiztea."

## Bonoa

Horretaz gain, jendea dantza ikustera anima dadin bost emanaldietarako balioko duen 18 eurotako bonoa salgai egongo da Manuel Lekuona kultur etxean. Bestalde, ekitaldi bakoitzeko prezioa 6 eurotako izango da. •

# Auditorioa lepo, bihar Taxi ikusteko


Taxi taldeak Lasarte-Orian joko du bihar 22.30etik aurrera, eta erabat beteko da kultur etxeko auditorioa. Udaleko Gazteria eta Festa Sailak eta Cadena 100 irrati kateak antolatutako emanaldi hau doakoa da, baina bi erakunde hauek banatutako gonbidapen txartela eraman beharra dago, eta agortuta daude astearen hasieratik.

Taxi Gibraltarren sortutako pop-rock hirukotea da, Dylan Ferrok, Dani Fak eta Danny Bugejak osatua. Hiru kideok Melon Diesel taldetik datoz; hain zuzen ere, boskote hura bereizi zenean sortu zuten Taxi, 2004an. Azken honek, gainera, Melon Dieselen antza handia du oraindik ere; oro har gaztelaniaz kantatzen dute, eta Mirando Atras haien disko berriena aurreko talde

haren abesti ezagunen bertsiok osatzen dute.

Taxi taldeak hiru disko atera ditu orain arte: *Libre*, *Mil Historias* eta iazko udaran argitara eman zuten *Mirando Atras* hau. Azken hau hamabi abestik osatzen dute. Horieta-rik bederati dira Melon Die-selekin ateratako kantuen bertsiok; esaterako, *Quiero un camino*, *Por ti* eta *Tu oportunidad*. Hainbat musikari espainiarrekin elkarlanean egin dituzte bertsiok horiek guztiak.

Bestalde, Gun talde eskoziarraren *Better days* abestiaren gaztelaniazko bertsiok ere topa daiteke disko honetan, *Algo mejor* izenburupean. Bi lan original ere baditu album honek: *Diez mil excusas* eta *Mirando Atras* (diskoari berari izena ematen dio). •



Taxi taldeak *Mirando atrás* disko abestiek eskainiko ditu bihar Lasarte-Orian.

## Bisita gidatuek arrakasta handia izan dute

350 pertsona baino gehiagok bisitatu dute *Vidas Minadas, diez años después* erakusketa Lasarte-Oriako Udalak aurrera eraman duen sensibilizazio kanpainaren baitan. Erakusketa, Udaleko Kooperazio sailak eta Euskal Fondoak antolatuta, joan den otsailaren 27ra arte egon zen Manuel Lekuona kultur etxean.

Ahalik eta publiko gehien-ira iristeko helburuarekin, Udalak bisita gidatuak antolatuz zituen Gervasio Sanchezen pertsonen kontrako minen argazki erakusketa jarrita egon den bitartean. Ekimenean parte hartu dute Lasarte-Usurbil Institutuko ikasleek, Landaberri ikastolakoek, udal eskalategikoek, Zentro Zibiko-ko emakume talde batek eta Danok-Kide elkarteok, besteak beste.

Ana Urchueguia alkateak azaldu duenez, "oso kontentu gaude emaitzarekin eta era-



Besteak beste, Landaberri ikastolako gaztetxoak izan ziren erakusketa bisitatzen.

kusketara hurbildu diren taldeek erakutsi duten interesarekin". "Horregatik, orain arte egindako lanari jarraipena eman nahi diogu eta, jasotako

erantzuna ikusita, talde hauekin guztiekin sensibilizazio ildo horretan zein modutan lan egin dezakegun aztertuko dugu," adierazi du alkateak. •

## Lasarte-Oriako Zerbitzu Publikoek zaborra era egokian nola bota azaldu dute

Lasarteoriatarren bizi kalitatea hobetzeko asmoz, Lasarte-Oriako Udaleko Zerbitzu Publikoetako sailak herritarrei gogoratu nahi die zein den zaborra ateratzeko modu egokia, izan ere, egokiak ez diren praktika ugari ikusten ari dira.

Alde batetik, altzariak ateratzeko eguna asteazkena da, 20:00etatik aurrera. Osteguna jai eguna den kasuetan astearte gauetan atera beharko dira, lehen aipatutako ordu berean.

Departamentuko ardura-duna den Martín Morenok azaldu duen moduan, "ikusten ari gara jendeak nahi duenean ateratzen dituela altzariak eta horrek kaleak zikindu besterik ez du egiten."

Bestetik, Zerbitzu Publiko-etak sailetik azpimarratzen dute berriro ere lurrazpiko kontainerrak dauden lekuetan zaborra ez dela utzi behar

lehengo Z puntuetan. Udala inbertsio handia egiten ari da zabor guztia lur azpian edukitzeko eta Z puntuetan uzteak gastua handitzen du, izan ere, lurrazpikoaz gain, espaloietan dagoen zaborra ere kendu behar izaten dute zerbitzuek, lana bikoiztuz. Morenoren hitzetan, "egokiak ez diren praktika horiekin jarraituz gero, dagozkion santzioak jartzen hasi beharko dugu. Herritarren kolaborazioa behar dugu Lasarte-Oria garbi egoteko." •



# ‘Euskara mesedegarria da enpresentzat’

Marifer Gorostiza Euskarako Zerbitzuko aurpegi ezagunena da gure herriko merkatarientzat. Duela bost urte hasi zen bertan lanean eta geroztik hainbat hizkuntza kanpaina sustatu ditu herrian. Esperientzia hori azalduaz liburu bat idatzi du, *Nola sustatu euskara udalerriko enpresetan. Lasarte-Oriako Udalaren esperientzia*. Liburua aitzakitza izanik, herriko enpresek hizkuntzarekiko duten joerari eta normalizazioari buruz egon gara solasean.

Nerea EIZAGIRRE

## Nola sortu zen liburu egiteko asmoa?

Īnaki Arrutiarekin hitz egiten atera zen liburu egiteko asmoa. Euskara Zerbitzuan egiten ditugun gauza guztiak era txukunean jarri beharko genituzkeela esan nion eta hark animatu zidan. Eta zerbitzuan sartu nintzenetik zer egin nuen, aurretik zer zegoen, etab. idatzi ditut. Era honetara, liburu egin eta daukagun guztia txukundu dugu.

## Nori zuzendutako liburu da?

Udalerrietan nire lana egiten duena da jasotzailea. Teknikari berrientzat, zein urteak dararamatzatenentzat lagungarria da. Euskara teknikari askok baliabide gutxiarekin lan egiten baitute.

Guk hemen ikaragarriko luxua dugu. Bost pertsona gara eta beste lekuetan burua eta langile bat edo, hori ere ez, administraziozko pertsona bat dago laguntzaile lanetan. Giza baliabide horiekin ezin duzu gauza askorik egin eta ezin zara leku guztietara heldu. Horientzat lagungarria izan daiteke, liburu hartu eta ah, hauek ekintza hau egin dute eta egiteko erraza da gainera.

## Zerbitzuaren laguntza izan al duzu liburu egitekoan?

Umiltasun handiz, hau ez da nire lana bakarrik. Juanito ez balego nire atzetik eta gaizki egiten ditudan gauzak zuzentzen, Īnaki ez balego Marifer hemendik egin behar duzu esaten, lanean dudana giro ona ez balego, hau ez litzateke hemen egongo.

Ni ez naiz idazle ona desatretre hutsa naiz, mordoia kostatzen zait eta jende mordoia izan dut atzetik animuak ematen eta gauzak zuzentzen. Alde horretatik esan nahi dudana da guztion lanagatik atera dela liburrura aurrera.

## Eta liburuaren helburua zein izango litzateke?

Egiten duguna erakustea da eta edonorentzat honen zaitxo bat baliagarria baldin bada hobeto.

Asmoa ez da inongo kate-draririk ezartzekoa. Oso urrun gaude gauza guztietatik. Hau gure esperientzia da..

Honetaz gain, nik liburu irakurtzen duenari irakurketa interaktiboa egitea eskatzen diot eta gurekin kontaktuan jartzea.

Nik liburu hobetu nahi dudalako. Ziur egongo dela milaka ideia dituen teknikariren bat edo guk egindakoa beste era batera egin duena eta modu eragingarriagoan gainera. Hori nahi dut lotu, baina zaila izango da liburu apalean geratuko baita.

## Nolako enprekin egiten duzu lan?

Oso mundu konplexua da enpresena. Enpresaz hitz egiten dugunean aktibitate ekonomiko duen edozein jardueraz ari gara. Nik enpresa txikiekin lotuta egin dut lan, bat eta hamar langile bitartekoa, eta saltokiekin gehien bat.

Enpresa handiekin Buruntzaldea mailan egin dugun lana da eta orain gainera Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarekin batera lanean jarraitzen dugu.

## Eta aldatu al da Lasarte-Oriako enpresen joera euskararekiko?

Ni sartu nintzenean ez zegoen nik egiten dudana lana egiten zuen inor. Lehen enpresa bat zetorren eta kartelak etab ematen.

Orain harremana estuagoa da. Ni naiz pertsona hori, garrantzitsua deritzon figura hori, merkataritari hurbiltasuna ematen diona. Edozein momentutan Marifer ekarri iezadazu kartel bat ez dakit zerena. Gainera, ni oso pelma naiz eta haiengana noa askotan eta haiekin geratzen naiz hitz egiten etab. Harremanaren aldetik

aldatu da jendeak euskara zerbitzuarekiko, udalarekiko eta pertsonalki euskararekiko harreman gertuagoa sentitzen duela uste dut.

Era berean, hainbeste errepikatuta eta, baina zaila izango da konturatzia piztu da, eta konturatzera zara batzuk berez etortzen direla. Hasieran ez zen inor etortzen.

Orain erabiltzailearen eta kontsumitzailearen legea dela eta, ba horrelako gauzak baten bati iritsi eta galdetzen hasten dira, zer da hori, guri zertan eragiten digu, oraindik ez dugu ezer egin behar ez... Baina erantzunaz baliatzen zara hizkuntza aldaketa hori agian laster egin beharko dutela esateko edo behintzat prest egon daitezen. Hori ere aldatu da, galdetzen dute.

Honetaz gain, ni hasi nintzenean bazirudien euskarari mesede bat egitea eskatzen geniera merkatariei. Gaur egun euskararen erabilera haien enpresarako onuragarria dela esaten diet, kalitatea eta zerbitzua hobetzen dutelako, eta noski legea ere betetzen dutelako. Orain asko azpimarratzen dut hori. Euskarari ez diogu mesederik egin behar, euskara mesedegarria izan behar du enpresarentzat. Eta ikusten dut ba jendea migutzen dela pixkatxo bat gehiago behar horregatik. Niri pena ematen dit horrela izatea, baina errealitatea hori da.

Eta horretaz gain, ni sartu nintzenetik ba ikusten ari naiz,



Marifer Gorostiza Donostian, liburu aurkeztu aurretik.

ba saltokietan eta etorkin asko dagoela. Eta nire galdera da, orain arte lanean egon gare-nok ez baldin badugu jakin euskara nola integratu, nola moldatuko garen orain datorren boom berri guzti honekin. Ze gainera hona zerbitzuetan lanera datorren norbaiti ez zaio behartzen euskara ikaste-ra eta haiek ere ez dute beharrik ikusten. Baina ez da haien errua, gure gizartearen errua eta gure planteamenduen errua baizik. Ondorioz zerbitzu publikoa gero eta eraldunagoa da eta horrek ez du lagunduko.

Aldatu dira gauza batzuk, baina bestalde uste dut euskararen egoera zaila dela. Zaila da, ze gizarte honetan euskarak ez daukalako prestigioirik. Orduan, markarik eta prestigioirik ez

duen produktua zaila dela eta ez dela oso erraza. Alde horretatik ez da aldatu.

## Eredugarria al da beraz Lasarte-Oriako kasua?

Oso euskara zerbitzu gutxi, beno ez dakit baten bat egongo den gure estrukturaekin eta giza baliabideekin. Ez pentsa gure zortea dutenik besteeke.

Hori kontuan izanda, toki gutxitan egon da guk egin dugun lana egiteko eta gainera toki gutxitan daude gu bezala eskualdeka bilduta. Beraz Buruntzaldeako lana ez da Lasarte-Oriako lana, Buruntzaldeako teknikariren lana da, ni naiz guztia burutzen duena. Honela baliabide asko ditugu eta zaila da hau aurkitzea beste zerbitzuetan.

## Normalizazioa iristeko lan asko dago, orduan?

Euskararekin gauza asko dago egiteko. Euskarak behar duen prestigio soziala lortzen ez duen bitartean, prestigioak ekarriko baitu erabilera.

Ezagutza gero eta zabalagoa da, baina erabilera ez dator bat. Egiteko dena dago, euskara kalean barra-barra entzuten ez den bitartean.

Nik lehen energiak galtzen nituen, orain ez. Nik baino urte gehiago hemen lanean dararamatzateneke, hasi nintzenean lasai egiteko esaten zidaten, hemen emaitzak horrelakoak dira Marifer eta horrekin kontent egon zaitzake. Horrek emango dizkizu indarrak aurrera egiteko, ez pentsa lortuko duzula ze hori ez da errealitatea.

Eta hori ikasi dut, emaitza txikiak onartzen hemen eta bizi-tzako gauza askotan. •

## ‘Guztiak ateratzen gara garaile’

Euskararekin zeu irabazle da Lasarte-Oriako Euskaraz Zerbitzuaren leloa. Lelo hori dago enpresetan euskara sustatzeko egin duten ahaleginaren oinarrian, eta lelo horrekin bat egin zuen Patxi Baztarrিকা jarduneko Hizkuntza Politikarako sailburuordeak ere, asteazkenean liburu aurkeztu zutenean.

Baztarrikaren ustez, zerbitzua euskaraz emanez gero, enpresa bera “askoz kompetitiboagoa” da: “Inork ez du galtzen. Guztiak ateratzen gara garaile”.

Lasarte-Oriako enpresetan euskara sustatzeko, “puzzle zatiak pixkanaka



Rikardo Ortega Euskara Batzordeko presidentea, Baztarrিকা eta Gorostiza.

itsastan” joan direla azaldu zuen Gorostizak. Horregatik, lotuta nahiz lotu gabe dauden hainbat piezek osatzen dute liburuaren azala: “Egin gabe dago oraindik”. Hala

ere, bera Euskara Zerbitzuan sartu zenean halako gidaririk ez zuela esan zuen, eta hau hemendik aurrerako teknika-rientzat baliagarria izango den itxaropena agertu zuen.

# Emakumeen aldarria, gaurtik hasita

Udalak nahiz Bilgune Feministak hainbat ekitaldi egingo dituzte asteburuan

TXINTXARRI

Martxoaren 8a etzi izanda ere, gaur hasiko dira Emakumearen Eguna ospatzen. Udalak eta Emakumeen Zentro Zibikoak elkarlanean alde batetik, eta Lasarte-Oriako Bilgune Feministak bestetik, hainbat ekitaldi antolatatu dituzte astebururako.

Esaterako, Emakumeen Zentro Zibikoa kalera aterako dute gaur. Izan ere, erakunde honetan emakumeek egiten dituzten askotariko eskulanak ikusgai jarriko dituzte Brigiden plazan. Hormirudi bat ere jarriko dute, 10:00ak eta 18:00ak bitartean. Nahi duen emakume orok bere ekarpena egin ahal izango du bertan. Bestalde, 21:30ean afaria izango da Txitxardin Beltza jatetxean. Izena emateko epea itxita dago, eta ehun emakumetik gora elkartuko dira. Ondoren, dantzaldia izango dute jatetxean bertan.

Igandea, martxoaren 8a bera, antzezlan batekin ospatzea proposatu du Udalak. 19:30ean *Entre mujeres* lana izango da ikusgai Manuel Lekuona kultur etxeko auditorioan. Donostiako ikastetxe erlijioso batean ikasi zuten bost emakume afaltzeko elkartu dira, 25 urte elkar ikusi gabe igaro eta gero; hori da lanaren mamia. Lasarteko Helduen Hezkuntza Zentroko hainbat kidek egin dute antzezlan, gaztelaniaz. Sarrerak bi eurotan daude salgai, kultur etxean bertan.

## Abortuaren inguruan

Bilgune Feministari dago-kionez, abortu librea aldarrikatzeko baliatuko dute aurtien Emakumearen Nazioarteko Eguna. Horrenbestez, abortuari buruzko film bat, *4 meses, 3 semanas, 2 días*,

eskainiko dute gaur Xirimirin, 20:00etatik aurrera.

Larunbatean, 12:00etan, triki-poteoari ekingo diote Okendo plazatik, eta 14:30ean bertso bazkaria egingo dute Xirimirin. Amaia Agirre eta Ane Labaka bertsolariak lagun, menu goxoa dastatzeko aukera izango da: entsalada bufeta, oilaskoa saltsan eta limoizko sorbetea. Menu begetarianoa ere izango da aukeran. Bazkarian parte hartzeko tiketak 8 euro balio du langabetuentzat, eta 10 euro gainontzekoentzat. Gaur eguerdira arte izango dira salgai, Xirimiri, Sustrai eta Ilargin. Larunbatean bertan, 19:30ean, elkarretaratzea egingo dute udaletxe aurrean.

Igandeari dagokionez, Euskal Herriko Bilgune Feministak Donostian egingo duen manifestazioan parte hartzera deitu dute. 13:00etan abiatuko da, Bulebarretik.



Marisa Zubiri, Esperanza Garcia, Lourdes Acevedo eta Maite Iglesias, Udalak antolatutako ekitaldien berri ematen.

## Ekitaldiak, laburbilduz

### Martxoak 6, ostirala

**10:00etan**, Emakumeen Zentro Zibikoak hormirudia osatzeari ekingo dio, Brigiden plazan.

**20:00etan**, Bilgune Feministaren bideo foruma pintxo janarekin, Xirimirin. Filma: *4 meses, 3 semanas y 2 días*.

**21:30ean**, Emakumeen Zentro Zibikoak antolatuta, afaria Txitxardin Beltzan.

### Martxoak 7, larunbata

**12:00etan**, triki-poteo aldarrikatzailea Okendotik, Bilgune Feministak antolatuta.

**14:30ean**, emakume bazkaria Amaia Agirre eta Ane


Labaka bertsolariekin Xirimirin, hau ere Bilgune Feministak antolatuta.

**19:30ean**, elkarretaratzea udaletxe aurrean, Bilgune Feministak deituta. Leloa: *Emakumeak gure gorputzaren jabe. Abortua ez da delitua eskubidea baizik.*

### Abenduak 08, igandea

**13:00etan**, manifestazioa Donostiako Bulebarretik, Euskal Herriko Bilgune Feministaren deialdiari erantzuz.

**19:30ean**, *Entre mujeres* antzezlan, kultur etxeko auditorioan.



**ADURIZ DE LASARTE S.A**

Loidi kalea 3 • Lasarte-Oria • Tel.: 943 361278

**SAIZAR**  
Betiko Sagardoa

Sagardoa • Sidra Natural  
**SAIZAR**  
Sagardoa Feminista  
Creació 2005  
Embotellado en SIDRAS SAIZAR, S.L.  
Kale Zahar Auzoa, 39  
USURBIL  
GIPUZKOA

Kale-zahar Auzoa, 39  
20.170  
USURBIL  
GIPUZKOA  
Tel. 943 362 228  
Fax 943 366 412  
e-mail: sidrerria@sidrassaizar.com

www.sidrassaizar.com

Kiroletako agenda

**FUTBOLA**

**Larunbata 7**

**10:30ean**, Ostadar-Hernani (Infantilen Ohorezko maila, kopa) Michelinen.

**12:00etan**, Ostadar-Touring (Infantil Txiki Kopa) Michelinen.

**15:30ean**, Ostadar-Intxaurdi (Emakumezkoen Liga, kopa) Michelinen.

**17:15ean**, Ostadar-Aloña Mendi (Kadeteen Ohorezko maila, kopa) Michelinen.

**16:30ean**, Danena-Texas Lasartearra (II. Erregionala, kopa) Elbarrena, Zizurkil.

**17:30ean**, Zumaiaiko-Ostadar (Emakumezkoen KDT F-II, txapel-dunen fasea) Aita Mari, Zumaia.

**17:30ean**, Amaro-Texas Lasartearra (I. Jubenila, kopa) Usabal, Tolosan.

**Igandea 8**

**10:45ean**, Antiguoko-Ostadar (Alebinak, txapeldunen fasea) Berio, Donostian.

**16:00etan**, Axular Lugaritz-Ostadar (II. Erregionala, igoera fasea) Herrera, Donostian.

**17:30ean**, Santo Tomas Lizeoa-Ostadar (I. Jubenila, igoera fasea) Berio, Donostian.

**FUTBOLA 8**

**Larunbata 7**

**13:30ean**, Lasarte BHI-Zarautz (Eskolarteko infantilak) Michelinen.

**FUTBOLA 7**

**Larunbata 7**

**18:00etan**, Niasa-Corpa-Hispavista.com (III. Maila) Felix Garin, Donostian

**ARETO-FUTBOLA**

**Larunbata 7**

**17:45ean**, ISU Leioak-Zarautz (Gipuzkoako Liga, I. Maila) Kiroldegian.

**18:00etan**, Alegria-Aldaz H.K. (Euskal Liga) Alegria-Dulantzin.

**HERRIKO TXAPELKETA**

Michelin edo frontoian

**9:10ean**, Izarra-Tragoxka

**10:00etan**, Buenexea-Katanga

**10:50ean**, ISULei.-Viña del Mar

**11:40ean**, Biyona-Ainhoa

**12:30ean**, Jordi- Oriá Txiki

**13:20ean**, Izkia-Lurra XXI

**14:10ean**, Ilargi-Morrison

**15:00ean**, Danena-Obelix

**Igandea 8**

**HERRIKO TXAPELKETA**

Michelin edo moduloan

**10:00etan**, Siglo XX-Okela

**10:50ean**, Oriá krist.-Mayi

**11:40ean**, Epel-IOB H.K.

**SASKIBALOA**

**Larunbata 7**

**20:15ean**, Aldapeta Nucleo-Ainhoa (Gizezko seniorrak) Aldapeta kiroldegia, Donostian.

**PILOTA**

**Larunbata 7**

**12:15ean**, Intza-Bergara (Eskuz binaka II. Seniorra) Michelinen.

**16:00etan**, Usurbil-Intza 3 (eskuz binaka, infantilak) Astigarragan.

**16:00etan**, Intza I-Urnieta I (eskuz binaka, infantilak) Urnietan.

**17:00etan**, Intza 2-Hondarriabiako 2 (eskuz binaka, infantilak) Michelinen.

**PALA**

**Larunbata 28**

**XV. PALA TXAPELKETA**

Michelingo frontoian

**15:00etan**, X. Etxezarreta eta Haritz Urdanpileta-Mikel Begiristain eta Jon Begiristain.

**Igandea 1**

**XV. PALA TXAPELKETA**

Michelingo frontoian

**09:15ean**, Iñaki Lizaso eta Alain Etxebeste-Oskar Lazkano eta Iñigo Arluziaga

**10:00etan**, Bernaitz Odriozola eta Santi Martin-Oskar Lazkano eta Iñigo Arluziaga

**10:00etan**, Josu Iparragirre eta Aitor Matxain-Imanol Muxika eta Unai Salaberria

**IGERIKETA**

**Larunbata 7**

**17:00etan**, Buruntzaldea Igeri taldeko Haitz Mitxelenak Euskal Herriko neguko txapelketan parte hartuko du infantil mailan, Legazpin.

**Igandea 8**

**10:00etan**, Buruntzaldea Igeri taldeko Haitz Mitxelenak Euskal Herriko neguko txapelketan parte hartuko du infantil mailan, Legazpin.

**BOLA-JOKOA**

**Igandea 8**

**10:00etan**, Ostadarreko bolo sailak lehendakari txapelketan parte hartuko du, Michelingo bolatokian.

**JUDO**

**Larunbata 7**

**10:00etan**, Iñaki Elizalde LOKEko judokak 20 urte azpiko Espainiako txapelketan parte hartuko du 90 kilo baino gehiagoko mailan Leganes, Madrilen.



Kadete mailako judokek lau domina ekarri zituzten Espainiako txapelketatik. Parte hartu zuten lauek lortu zuten saria.

**Herriko judoken asteburu oparoa**

■ Dominak lortu dituzte Lasarte-Oriako kadeteek banaka Espainiako txapelketan eta hurrek taldeka Gipuzkoakoan

Lasarte-Oriako Kirol Elkarteak judoka gazteak indartsu segitzen dute eta asteburu emanokorra izan dute. Kadete mailakoak lau domina eskuratu dituzte Murtzian Borroka modalitateko Espainiako txapelketan, Landaberriko haurrak hirugarrenak izan dira Gipuzkoako txapelketan eta Beñat Elizalde 23 urte azpiko txapeldunak maila ona erakusten jarraitzen du. Izan ere, Espainiako Kluben arteko ligaxkan ari da Hondarribiko Ama Giudalupeko taldearekin eta liderrak dira lehia guztiak irabazi eta gero.

**Borroka txapelketa**

Kadete mailako lau judoka lasarteoriatarrek parte hartu dute Espainiako Borroka modalitateko txapelketan eta laurak itzuli dira domina banarekin.

Aurreko asteburuan Murtzian jokatu zen lehiaketa honetan Leire Zubizarreta Espainiako txapeldunordea

izan zen eta Amaia Curiel, Esteban Martinez eta Mario Garrido hirugarrenak.

Lau kirolari joan eta lau domina ekarri dituzte. Pozik beraz herritarrek. Gorka Aristegi entrenatzaileak adierazi digu asteburu bikaina izan dela, "oso pozik gaude lortu ditugun emaitzekin. Aipatu behar dugu nesken-tzako jasotzen dugula Lasarte-Oriako Udaletik diru-laguntza eta hor daude emaitzak. Leire Zubizarreta txapeldunorde eta Amaia Curiel hirugarren".

**Taldeko txapelketa**

Haurren mailan bestalde, taldeka Gipuzkoako txapelketa jokatu zen Donostian eta Landaberri ikastolako mutilek brontzezko domina lortu zuten.

"Oso ondo aritu ziren eta txapeldun geratu zirenei irabazi eta gero hurrengo lehiak galdu eta azkenean hirugarren geratu ziren,"

aipatu digu judoka gazteen entrenatzaileak.

**Elizalde sasoi onean**

Bestalde Beñat Elizalde 23 urte azpiko Gipuzkoako txapelduna oso maila onean ari da borrokatzen eta asteburu honetan Madrilen izan da Espainiako klubien arteko ligan lehaitu zen Ama Guadalupeko taldearekin.

Elizaldek borrokaldi guztiak irabazi zituen eta Hondarribiko taldea lehenengoa da liga honetan. Beraz emaitza onak pilotzen jarraitzen du 21 urteko herritarrek. Martxoan 23 urte azpiko Euskadiko txapelketan parte hartuko du eta apirillean Espainiakoan.

Gorka Aristegik adierazi digu oso "harro" daudela maila ezberdinetan lortzen ari diren emaitzekin, denei "zorionak" baina "lanean jarraitu" behar dutela dio ondorengo asteetan beste zita batzuk dituzte eta. •

Kiroletako oharrak

**Helduentzako igeriketa ikastaroa**

Martxoaren 9tik apirilaren 29ra, helduentzako igeriketa ikastaroa eskainiko dute udal kiroldegian. Astean hiru saio izango dira (astelehenetan, asteazkenetan eta ostiraletan), 19:10etatik 20:30etara. Izen emateko azken eguna gaurkoa da. Ikastaroak 100,40 euro balio ditu eta kiroldegiko bazkide direnentzat 55,80 euro.

Informazio gehiago nahi izanez gero kiroldegiko bulegora

hurbildu behar duzue edo 943-376182 telefonora deituz eska dezakezue.

**Arrantza baimena**

Buruntz-Azpi elkarrekin jakin arazten du 2009ko denboraldiko arrantza baimena eskatzeko epea ireki dela.

Baimena bideratu nahi dutenek astearte eta ostegunetan 19:30etatik 20:30etara egin ahaliko dute elkarrekin. Baimena eskatzeko azken eguna martxoaren 12a izango da.

**XXI. Squash txapelketa antolatu du Kirol Zerbitzuak**

Kirolen Udal Zerbitzuak hogeita batgarren Squash txapelketa soziala antolatu du.

Txapelketa martxoaren 23an hasiko da eta parte hartzeko gutxienez adina 14 urtekoa dela azpimarratu du Kirol Zerbitzuak.

Parte hartzeko asmoa dutenek martxoaren 13a arteko epea dute Kiroldegiko kafetegian izena emateko. Inskripzioaren prezioa Buruntzaldeko bazkideentzat 10 eurotako da. •

## Ostirala, 6

### Kontzertua

AURKA taldearen emanaldia. Garin tabernan, Hernanin, 19:30ean.

### Dantzaldia



CIRCLE OF TRUST, break dantza-konpainia, eta Logela Multimedia produkzio digital taldearen lan berria, Lasarte-Oria dantzan 2009 ekimenaren barruan. Sarrera 6 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 20:00etan.

### Kontzertua

LUIS DE VALLEKAS kaleko abeslariak Andatza plazako Naiban tabernan emango du ekitaldia. Naiban tabernan, 23:30ean.

## Larunbata, 7

### Kontzertua

TAXI taldean kontzertu eskainiko du. Sarrera gonbit-txartelarekin egingo da. Manuel Lekuona kulturetxean, 22:30ean.

## Astelehena, 9

### Zine soziala

VOLVERAS filma eman eta Ekin-tza-Dasalud elkarteak hitzaldia eskainiko du ludopatia gaiaz hartuta. Danok Kidek antolatutako V. Zinema Soziala zikloaren barruan burutuko da. Manuel Lekuona kulturetxean, 17:30ean



## Angel Nuñezen argazkiak Jalgin

Angel Nuñez donostiarrak toki ezberdinetan aterarako argazkiak hilabete osoan egongo dira Jalgi tabernako paretetan zintzilikatuak. Zuri beltzean ateratakoak dira eta hiriak zein pertsonak erretratatu ditu. Paisaia begiralea izena jarri dio erakusketari.

JALGI KAFE-ANTZOKIAN  
MARTXOAN EGUNERO EGUN OSOZ

## Osteguna, 12

### Zinea

VI. FILM LABURREN zirkuituaren barruan



Kabia, Egiaitik gezurrezko bizitzara, Lo bakarrik, Poema baten irakurketa Euskal Herrian, Musika, P.D. Ondo ibili, Berde eta Bankuaren lapurreta film laburrak ikusi ahalko dira. Jalgi kafe-antzokian, 21:30ean, EUSKARAZ

## Ostirala, 13

### Kontzertua

THE BILLIE JEANS taldearen kontzertua Udaleko Gazteria Sailak eta Xpressionk zirkuituak antolatuta. Kulturetxeko kafetegian, 20:00etan.

### Kontzertua

BELCEBLUES taldea Infer disko berria aurkeztera dator Jalgi Kafe antzokira. Jalgi kafe-antzokian, 22:30ean.

## Larunbata, 14

### Antzerkia

HANDITAN lana eskainiko du Glu glu taldeak 5 urtetik gorako haurrentzako. Sarrera, 3,15 euro. Manuel Lekuona Kulturetxean, 18:00etan, EUSKARAZ

## Igandea, 15

### Zinea

EL LINCE PERDIDO filma eskainiko da haurrentzako zinea atalean. Sarrera, 3,15 euro. Kulturetxean, 17:00etan.

## Emakumearen nazioarteko eguna

### egitaraua

## Ostirala 6

10:00etan, Emakumeen Zentro Zibikoak hormirudia osatzeari ekingo dio, Brigiden plazan.

20:00etan, BIDEFORUMA Xirimiri elkarteak. 4 meses, 3 semanas y 2 días filma emango da lehendabizi. Lasarte-Oriako bilgune feministak antolatuta.

21:30ean, Emakumeen Zentro Zibikoak antolatuta, afaria Txitxardin Beltzan.

## Larunbata 7

12:00etan, TRIKIPOTEO aldarrikatzailea egongo da Okendotik hasita Lasarte-Oriako bilgune feministak antolatuta.

14:30ean, BAZKARIA Xirimiri elkarteak Amaia Agirre eta Ane Labaka bertsoariekin Lasarte-Oriako bilgune feministak antolatuta. 10 euro, langabetuek 8 euro. Menua: entsalada bufeta, oilaskoa saltsan eta limoizko sorbetea.

19:30ean, KONZENTRATZIOA Emakumeak gure gorputzaren jabe. Abortua ez da delitua eskubidea baizik lelopean udalaxe aurrean.

## Igandea 8

19:30ean, ENTRE MUJERES antzerki lana eskainiko dute Lan beti Lan Epako antzerki taldeak. Manuel Lekuona kulturetxean, 19:30ean. GAZTELANIAZ.

13:00ean, MANIFESTAZIOA Donostiako bou-lebarretik Euskal Herriko bilgune feministak deituta. Lasarte-Oriako bilguneak deia luzatu die herri-tarrei manifestazioan parte har dezaten.

## Oharrak

### Afari italiarra

Xirimiri elkarteak afari italiarra antolatu dute biharko, hilaren 7rako. Menuak 7 euro balio ditu: antipasto, pizza, pastel con fruti di Mare eta postrea (edaria aparte). Iluntzeko 20:30etatik 22:30ak bitarte emango dute afaria, ez da txartelirik hartu behar, azaldu eta kitto.

### Autobusa AC-DC ikusteko

Martxoak 31 asteartea, Bartzelonan eskainiko duen kontzertura joateko autobusa antolatu da. Irteera lekua Donostia edo inguruko herri batean izango litzateke. Autobusa goizeko 9:00etan aterako da Bartzelonarantz eta kontzertu ostean, bueltatuko da. Joan-etorria 50 euro dira eta eserleku kopurua mugatua da. Informazio gehiagorako bus\_acdc@hotmail.com helbidera bidali mezua.

### Calçotada

Buruntz-Azpi elkarteak jakin arazten du martxoak 7an Katalunian ohiturazkoa den Calçotada egingo duela. Menua calçotak eta arkume errea. Elkarteko ohar-taulan eman daiteke izena.

### Korrika 16

Korrika 16a Lasarte-Oriatik apirilaren 2an pasako dela eta, nahi duen guztiak Km-a lor dezake laguntza baten truk. Interesa duzuen talde, erakunde edo besteren batek Munteri AEK euskaltzari deia deza eta bertara jo dezake. 943 37 28 63

### Inauterietako zozketa

Inauterietan Zirko Mundialeko konparsan zozketatutako urdaiazpiaren zerbaki sariduna honakoa da: 347 da. Saria jasotzeko deitu 943 371448 telefonora (15 eguneko epea dago).

### Kolon minbiziaren proba

Lasarte-Oriako Osasun Zentroak eta Donostia Ospitaleak doan eskaintzen ari dira koloneko minbiziaren antzemate goiztiararako proba bat 50 eta 69 urte arteko emakume eta gizonezkoen artean. Hauei guztiari probarako gonbidapen pertsonala bidaliko zaie postaz. Udaletik proiektu honetan parte hartzerantz animatzen zaituztegu, izan ere, garrantzitsua iruditzen zaigu koloneko minbiziaren antzemateko eta prebenitzeko.

### Oharrak jartzeko:

Tel.: 943 366858  
txintxarri@ttakun.com  
txintxarri@txintxarri.info  
www.txintxarri.info

## Dagokionari

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkarira. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943-366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz txintxarri@ttakun.com helbidera bidaliaz. Gure bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).

# Auzo elkarteek ez zuten erantzun garbirik izan

Juan Mari Mañeroren saioan aukera izan zuten zalantzak azaldu eta eskaerak egiteko

## TXINTARRI

Azalean azaldu dugun bezala, Punto Radioko *Protagonistas Gipuzkoa* irratsaioan herriko auzo elkarteek eta gazteek bere eskaerak eta kezak azaldu zizkieten udal ordezkariari.

Joxe Usabiaga Lasarte-Oria bizilagunen elkarteko kidea izan zen auzo elkarten ordezkaria eta harekin hitz egin dugu hauen kezak ezagutzeko. "Iaz baino denbora gehiago izan dugu gure kezak mahai gainean jartzeko, zaharrak zein berriak eta ez dugu erantzun garbirik izan," adierazi digu Joxek.

### Kexak

"Garraioari dagokionez, lau urte daramatzagu horrekin eta oraindik gauzak konpontzeko daudela esan digu Iñakik. Eta, gainera, ospitalera autobusa jartzeari zail ikusten duela. Gero eta lasarteoriatar gehiago doa ospitalera, langileak edo kanpo kon-



Auzo elkarteek lau urte daramatzate, ospital gunerako autobusa eskatzen.

sultara doazenak. Egun bi autobus hartu behar dira eta hori ez da aurrerapena. Guk geurean jarraituko dugu lortu arte," esan digu.

Ondoren, Oztabideko elkar-tekoei lapurreten berri galdetu dutela azaldu digu, "bizilagunak oso kezkatuak daude bertan izan baitira lapurreta gehien. Erantzuna batak beste irrua

botatzea da, Udalak ertzainei eta ertzainek udalari. Aurreko astean ertzainekin hitz egin eta hau lapurrentzat paradisua dela esan ziguten".

"Bestalde, udalak urriari Loidi Barreneko Babes Ofizialeko etxeak abenduan edo urtarrian eraikitzen hasiko zirela esan zuten. Martxoan gara eta oraindik ez dira hasi. Luzerako

joango dela dirudi gainera. BOEekin oso mugatuak dituzte irabaziak eta horregatik izan daiteke. Hainek krisiari egozten diote," aipatu du Usabiagak.

### Eskaerak

Beste puntuak eskaerak izan direla azaldu digu, "batetik agenda 21eko bileran Mitxelino aparkaleku hutsak alokatzeko eskatu genuen. Hauetako erdia baino gehiago hutsak daude eta horiek herriko diruarekin mantentzen dira. Saltzen ez baldin badira eta alokairuekin lortu daiteke zerbait. Hiru hilabete pasa dira bileraz geroztik eta ezer ez da egin."

Eta honela jarraitu du, "Zumaburu aldean dauden oinezkoentzako kaleetan 20:00etatik 8:00etara kotxeek aparkatzeko baimena izatea eskatu genuen. Arazo handia da aparkalekuena herrian. Erantzun bakarra kotxea aparkatzeko ordaindu beharko dutela izan

da. Hori, nire ustez, ez da arazoari erantzuna ematea."

Era berean, mugikortasun arazoak ere izan dira hizpide. "Gero eta jende gehiago dabil herrian, gorpil-aulkietan eta zebra-bideetan arazoak dituzte igotzeko koska handia dago eta. Horiek konponduko zituztela esan ziguten aurreko batean baina berdin jarraitzen dute. Gainera, askotan kotxeak daude bideetan aparkatuak eta ezin dira aulkiekin pasa. Hori ere ez dute kontrolatzen," aipatu digu.

Eta, azkenik, pertsona adin-uekin lotua ere beste eskaera bat egin dutela ere jakinarazi digu, "komun publikoak jartzeari, Irunen jarri dituzten antzekoak. Kalean baldin bazaude eta komunera joateko gogoak badituzu ez zara taberna batean sartuko. Oso itsusi da hori. Bestela zerbait hartu behar duzu. Kalean baldin badago errazago izango da." •

# eskerrik asko

[www.aralar.net](http://www.aralar.net)



ezkerreko **alternatiba** abertzalea

**aralar**